




## Azalera handietako salmentak %1,6 areagotu ziren

Azalera handietako salmentak  
Urte bakoitzeko ekaina. Indizea




Iturria: Eustat.

Ekainean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,6 gehitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Bilakaera hori elikaduraren sektorearen eskutik etorri zen, %2,5 hazi baitzen, gainerako produktuek jaitsiera txiki bat (-%0,2) izan zuten bitartean.

## Txikizkako merkataritzak %4,0 gehiago saldu zuen

Txikizkako merkataritza Euskadin  
Urte bakoitzeko ekaina. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %4,0 gehitu ziren ekainean, aurreko hileko tasa bera**. Era berean, sektoreak enplegua sortzen jarraitu zuen, baina sortzeko erritmoa pixka bat moteldu zen, %1,3ra arte.



## INEk berretsi du EAEko langabezia tasa murriztu dela

EAEko langabezia tasa  
Ehunekoak




Iturria: INE.

BAIren datuen arabera, **EAEko langabezia tasa puntu bat eta hiru hamarren murriztu zen bigarren hiruhilekoan, %7,1era arte, eta berretsi egin zuen BJAk aurreratu zuen beherakada (%7,4)**. Erregistro horrek aukera ematen dio Euskadiri autonomia erkidego guztietako langabezia tasa txikienarekin egoteko.

## Eraikuntzako kostuek apaltzen jarraitzen dute

Eraikuntzaren kostuen indizea  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

**Ekainean eraikuntza alorreko kostuak %3,4 gehitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean**. Horrela, martxoan hasi zen apaltzeko joerak aurrera jarraitzen du. Bestalde, lehengaiak %3,8ko gorakada izan zuten eta eskulana %2,1 garestitu zen.